



BEint



OPEN YOUR CAREER TO THE WORLD

Nazioartekotzeko programa
Programa de internacionalización



BasqueTrade
& Investment



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EROKOMAREN GARAPEN
ETA ABORTZURITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

BE INTERNATIONAL!

Bizi ezazu BEINT esperientzia

BEINT programak nazioartekotze alorrean atzerriko erakunde eta enpresetan formakuntza bat jasotzeko aukera eskaintzen dizu. Gazteek lan eta pertsona arloan esperientzia paregabea bereganatzea da helburua, daukaten formakuntza akademiko eta profesionala osatu eta aberastuko duena.



EZAUGARRIAK

BEINT formakuntza 3 fasetan jasoko dute, eta guztira 2 urteko iraupena izango du.

2
urte

1. FASEA (300 ordu)

Nazioartekotze alorrean Unibertsitateko Espezialistaren Graduondoko Berezko Titulua, EHUK eskainia.

Titulu honetan, kanpo-merkataritzaren, nazioarteko negoziazioaren eta salmenta-tekniken alorreko ezagutza sendoak jasoko dituzu.

2. FASEA (12 hilabete)

Laneko praktikak erakunde laguntzaileetan izango dira, esate baterako, Basque Trade & Investment-en Kanpo Sareko Bulegoetan, Espainiak atzerrian dituen Bulego Ekonomiko eta Komertzialetan, Elkarteeetan edo Klusterretan.

3. FASEA (8 hilabete)

Azkenik, atzerrian finkatutako enpresa batean, alde anitzeko erakundeetan edo bestelako erakundeetan laneko praktikak egiten osatuko duzu zure formakuntza.



BETEBEHARRAK

- Hautapen-prozesua amaitu aurretik graduko goi mailako unibertsitate-titulua eduki behar da.
- Ingeleseko B2 maila, atzerriko beste hizkuntza batzuk ezagutzea ere balioetsiko da.
- Deialdiaren urteko urtarilaren 1ean 30 urte beteta ez edukitzea.
- Administrazio auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unea baino gutxienez 12 hilabete lehenagotik edo elkarren segidako 5 urtetan aurreko 10 urteetan.
- Unibertsitate-tituludunentzako antzeko prestakuntza helburu duen beste edozein laguntzaren onuradun ez izana, baldin eta, laguntza horren bidez, nazioarteko erakunde edo enpresetan 6 hilabetez edo epe luzeagoz praktikak atzerrian egiteko aukera izan bada.

ZUZKIDURAK

Zuzkidura ekonomikoa 28.000 € eta 60.000 € artekoa izango da, xede-herrialdearen arabera.

Bat egizu BEINT erronkarekin eta bizi ezazu lan eta pertsona arloan esperientzia paregabe bat, nazioarteko erakunde eta enpresetan formakuntza jasoz.

Profesional entzutetsu gisa itzuliko zara etxera, eta horrek lan-merkatuaren ateak zabalduko dizkizu.

